

# AUPA POU

## BIZITZARI SOKAZ LOTUTA

Eneko eta Iker Pou

# Aurkibidea

HITZAURREA .....	9
1. GURE JATORRIAK .....	12
2. LEHEN ABENTURAK.....	18
3. EZKERREKO HANKAREKIN NIRE LEHEN DISKOTEKAN .....	22
4. ALPINISTA GAZTEEN TALDEA .....	28
5. OSTEGUNAK .....	32
6. ANNA PURNA .....	35
7. ESKIA, MUGITZEKO BITARTEKO BAT BAINO ASKOZ GEHIAGO .....	43
8. ACTION DIRECTE .....	52
9. AIZTO KANADAR HANDIA .....	57
10. 7 PARETA 7 KONTINENTE .....	61
11. PSICOBLOC .....	122
12. GARAI ZAILAK ZIREN.....	129
13. EL CHAÑI.....	132
14. ORBAYU.....	142
15. HARDEST OF THE ALPS .....	150
16. SHIMSHAL VALLEY.....	159
17. KLASIKO MODERNOA.....	167
18. PAN DE AZÚCAR ETA CORCOVADO .....	175
19. BAFFIN UHARTEA .....	182
20. CERRO TORRE .....	199
21. KOLPEZ KOLPE .....	210
22. TARRAGÓ .....	214
23. PERESTROIKA .....	221
24. BHAGIRATHI .....	225
25. SIBERIA .....	231
26. BI BIDE MALLORCAN .....	238
27. ROAD TRIP AEB-ETAN BARNIA .....	242
28. MAREJADA FUERZA 6 .....	250
EPILOGOA .....	256
ESKER ONEN ATALA .....	271

# HITZAURREA

## Simone Moro

Ez dago anai, neba-arreba edo ahizpa bikote asko goi-mailan eskalatzen duenik. Lehen eta orain, soka-  
ren bi aldeetan odol-lotura bat izateak beste estutu bat  
eman izan dio sokada tradizionalari, elkar ulertzeko eta  
ezagutzeko berezko erraztasun bat, eta horrek, ia beti,  
goratu eta sendotu egin du ebaluatzeko eta jarduera  
egiteko gaitasuna, baita emaitza bera ere.

Eneko eta Iker Pou anaiak ez dira salbuespena, eta  
uste dut ez didala inork ukatuko, alpinismoaren eta es-  
kaladaren gaur egungo panoraman ez dagoela anaia ja-  
tor eta zorientsuagorik bi euskaldunak baino. Enekok,  
anaia nagusiak, eta Ikerrek, gazteak, ezin hobeto har-  
tzen dute elkar. Alpinismoari emanagoa lehena, eta es-  
kalatzaile peto-petoa bigarrena, irribarrez eta bizipozez  
abiatu eta aritu izan dira bidaia eta abentura bakoitzean.

Ez dut gogoko pertsona baten nortasuna eta ibilbide bertikala gailur zerrenda  
soil batera edo zailtasun-gradu huts batera mugatzea. Eta Pou anaian kasuan ez dut  
salbuespenik egingo. Nago bertikalean egin duten ibilbide oso-osoa hitz batek bikain  
laburbiltzen duela: POLIBALENTZIA da hitz hori. Eskaladako 9b zailtasunetik altue-  
ra handietara, harkaitzetik izotzera, etxeko mendietatik planetako leku urruneneta-  
ra... bi anaiek beti izan dute gogoko beren burua proban jartzea, ezkutatu gabe, inork  
epaitu edo kritikatu dituen beldurrik izan gabe, arrakastarekin itsutu gabe... Baina  
beti sinetsi izan dute, elkarrekin, bien trebetasunak uztartuz eta emozioak kudeatze-  
ko gaitasuna soka berera lotuz, buruan jarritako guztia eskalatu zezaketela.

Beharbada urtean hilabete asko Mallorcan egiten dituztelako edo, Pou anaiek ja-  
kin dute joan diren espedizio guztietara "hondartzako" ohiko portaera dibertigarri,  
lasai eta txantxazale hori eramaten, baita beren lorpenak izaera berarekin balora-  
tzen ere. Beren burua serioegi ez hartzeko modu bat da, eta, aldi berean, markatik  
kanpoko bi pertsona direla antzematen duten guztiek hurbileko sentitzeko modu  
bat. Gauzak ondo eginez baina apaltasunez, indartsu baina giharrik atera gabe, eta  
beti lehenak izanez beren azken lorpena edonorekin partekatzen. Halaxe izango da  
beraien lehen liburu honekin ere.



# GURE JATORRIAK

**H**asieratik hastera komeni denez, oso atzera egingo dut, guk geuk gogora dezakeguna baino aurreragoko garaietara.

Gure gurasoek mendian ezagutu zuten elkar, Formigaleko eski-estazioan izan zen, Huescako Pirinioetan, 1968. urtean. Horrela gertatu behar zuen ezinbestean, ez bata ez bestea ez baitira inoiz “gautxoriak” izan. Alderantziz, biek ala biek beti maite izan dute natura eta han igarotzen zituzten jaiegunak.

Ama familia euskaldunekoa da. Garai hartan, baita gaur egun ere, “euskalduntasuna” mendiari oso loturik egon da beti, eta, gutxiago edo gehiago, familia gutzietan denok izan dugu aukera txiki-txikitatik mendira joateko. Ama sarri ibiltzen zen oinez, eta eskiatzera joaten zen noizean behin. Amaren aita, gure aitita Emiliano Azkarraga, Bilbon jaio zen, eta haren ama, gure amama Felisa Rodero, Ara-



*Aitita-amamen urrezko ezteiak Azkarraga familiarekin.*



*Gure gurasoei zor diegu gaur egun garen guztia. Biak bikainak dira!*



*Eskiatzen ezagutu zuten elkar. Logikoena zen, biek beti gozatu izan dutelako mendietako aisialdiaz.*

maion, sasoi hartan Arabako probintzian euskaraz hitz egiten zen eskualde kasik bakarrean; izan ere, Burgos eta Errioxarekin mugakide izanda, gaztelaniaren eragina handia izan da beti Araban.

Gasteiz, hainbat baldintza eta faktore zirela medio, “nazionala” izan zen, frankisten aldekoa, eta hango aerodromotik abiatu ziren Condor Legioko hegazkin alemaniarrek, Francoren aginduetara, Gernika suntsitzeko. Helburu zibilen aurkako lehen erasoaldi masiboa izan zen hura, gerora Pablo Picassok bere “Gernika” margolan entzutetsuan betiketua. Alabaina, gure aitita eta haren anaia “gudariak” izan ziren, Euskadiren aldeko euskal gudarostean borrokatu ziren, eta, beraz, Espainiako Errepublikaren gobernu legitimoaren alde. Gerora, gerra galtzean, gure aitita heriotza-zigorrrera kondenatu zuten, baina ataka larri hartatik ozta-ozta libratu egin zen azkenean. Aldiz, haren anaia nagusia, Jose Maria, ezinez “Lurgorri”, fusilatu egin zuten 21 urte zituela, Derioko hilerriko hormaren aurka, 1937ko abenduaren 16an. Guk 2006an egin genion gure omenalditxo, Picu Urrielluko (Naranjo de Bulnes) mendebaldeko aurpegiari zabalduko bide politari haren ezizena jarrita. Aititaren semeek, Josebak, Gotzonek eta Ibonek, haren ondare politikoari jarraitu zioten. Lehena, urte askotan EAJren diputatu izan zen Madrilen, ondoren Eusko Alkartasuna alderdira joan zen, eta hainbat urte geroago Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburu izan zen.

Gure aita etorkizun oparoko eskalatzaile eta alpinista zen gaztetan, nahiz eta ez zen inoiz mendian bete-betean aritu; izan ere, batetik, mendia bezain maitea zuen judoa ere, eta kirol horretan Espainiako txapeladunorde izatera iritsi zen bere kategorian. Baina, gainera, aitarentzat, mendia eta kirola baino lehenagokoak izan dira beti emaztea eta familia. Aitaren aita, gure aitona Francisco, Menorcakoa zen eta



*Paco, gure aitita menorarra, gerra amaitu ondoren Euskadin geratu zen, eta bertan ezagutu zuen amama Ana.*



*Zorionez, txiki-txikitatik erakutsi dizkigute baliorik onenak.*

haren arbasoak Mallorcakoak. Hari zor diogu Pou abizena. Militarra zen, eta 18 urte besterik ez zituela, alfereza orduan, atxilotu egin zuten Espainiako Errepublikaren alde egiteagatik, ordurako Franco generalaren indar nazionalen mehatxupearan baitzegoen Errepublika. Menorcan preso egon ondoren, Bilbora bidali zuten soldaduska egitera, eta handik Gasteizera. Hain zuzen, Gasteizen ezagutu zuen gure amona Ana. Zer den bizitza, egoera zailenetatik ere sor daitezkeela istorio politak. Bat-egite haren ondotik, hamaika seme-alaba etorri ziren; hain zuzen, hamaikako horretan bigarrena izan zen gure aita. Amona 2006an hil zen, eta aitona, 2011n. Gure harremana haiekin oso estua izan zen beti. Aitonak ez zion utzi inoiz menorarra izateari, eta azkenera arte maite izan zuen bere lurra. Eguberri guztietan katalanez hizketan entzuten genuen, uharteetara deitzen zuenean. Baina Gasteizen berrogei urtez bizi izan ondoren, euskalduna ere bazen, eta Txagorritxuko ospitaleko zuzendari izatera iritsi zen; zenbait urte lehenago gerra galdu zuen batentzat oso gora iristea zen hori. Xakean ere trebezia aparta zuen, eta hainbat txapelketetan parte hartzen zuen.

Nortasun eta itzal handiko pertsona izan zen, baina aldi berean, atsegin eta maitekorra. Garai hartako pasadizoen artean, gure gogokoena aitari gertatutakoa izan zen.

Urte haietan autoa izatea ez zen erraza, eta gure aitona auto handi bat zeukan, familiarra. Aita, ordurako 17 urteko gaztea, ibilgailu dotore hura gidatzeko irrikatzen zegoen.

–Ama, non daude autoaren giltzak?

–Seme, ezta okurritu ere, zerbait gertatuz gero, zure aitak larrutu egingo zaitu –esan zion, serio demonio, amonak.

–Bai, baina gogo biziz nago... zaindu aita konturatu ez dadin.



*Uda gehienak Pirinioetan igarotzen ditugu. Honetan, Azkarraga-Grajales familiarekin gaude.*

Aitak autoari heldu zion, etxe-multzoari itzuli bat eman zion dotore baino dotoreago, eta dotorezia berarekin aparkatzera zihoala, azken unean kolpe dotore bat eman zion autoari.

–Kaka zaharra, ederra egin diat, nireak egin dik –esan zuen aitak, bere kolporako.

Etxera igo zen, gertatutakoaren berri eman zuen, eta aitona sutan jaitsi zen kalera autoa ikustera. Aita eta amona, berriz, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko bederatzigarren pisu hartatik begira geratu ziren, beldurrez eta ikusminez.

Baina, hara non, azak ontzeko, aitona beste “istripu” bat izan zuen: autoari emandako kolpea ikustera makurtu zenean, galtzak zarrastatu zitzaizkion ipurdi aldean, eta ebaki handi hark agerian utzi zituen haren barruko arropak.

Amonak bi aldiz pentsatu gabe bota zuen:

–Seme, jaitsi, jaitsi hadi azkar eskaileratik, hire aita igogailutik igoko duk eta. Hoa, hoa etxetik azkar, eta ez itzuli denbora-tarte luzean –esan zion amonak aitari, etxeko atetik bultzaka.

Esan dizuedan moduan, aitona-amonei gure historia hurbileko garairik gogorenetakoa bat bizitzea egokitu zitzaien. Urte haietan, bi bandotan banaturik geratu zen herrialdea, eta egoera horrek milaka hildako, erbesterratu eta desagertu eragin zituen.

Bi familiak alderdi berean borrokatu ziren, Errepublikaren defentsan, baina posizio erabat desberdinetatik. Pou aitona gobernu legitimoaren alde borrokatu zen, eta Azkarraga aitita, aldiz, Euskadiren alde, bere aberriaren alde. Bat-egitea halabeharrek ekarri zuen, erabakimen sendoak baino gehiago. Uste dut hori izan zela bando errepublikarraren arazoa: inoiz ez zela gai izan bat eginda eusteko, eta, horren ondorioz, Francoren botere-makina militar nahiz ekonomikoaren aurka buruz buru borrokatzea, ezinezkoa gertatu zen.





Taillon (3.144 m) izan zen gure lehen hirimilako.

Zauriak irekita jarraitzen du gaur egun oraindik ere.

Iker eta biok zorte hobea izan genuen, eta kirola aukeratu ahal izan genuen. Tira, ez nuke kirola esango; mendirako grina, pasioa, esango nioke gureari. Eta inoiz ez dugu inoren aldeko hautu politikorik egin. Nahita, jarrera kontzientea izan da, zauri ireki horren odoljariora ez baita eten oraindik. Hori bai, beti pentsatu izan dugu ezinikusi horri konponbidea eman behar zaiola, gertatutakoak ahaztu gabe, eta, batez ere, zauriei sendabidea emanaz, berriro halakorik inoiz gerta ez dadin.

Egia da, hala ere, gurea ez dela inoiz jarrera pasiboa izan. Neutraltasun horretatik, beti saiatu izan gara sufritzen dutenei laguntzen, eta, ahal izan dugun neurrian, gure premian izan direnei zoriontsu izaten laguntzen, hurbilekoei nahiz urrunagokoei, berdin gure pentsamoldearekin bat zetozenei nahiz gure sokakoak ez zirenei.

Baina, aitari buruz ari ginen. Arestian esan dugu mendia ez zuela lanbide izan, baina, hala ere, Arabatik Aconcaguara egindako bigarren espedizioan parte hartu zuen, eta mendizale arabarrek igotako lehen zortzi milakoan ere (Cho Oyu) antolaketan lagundu zuen. Juanito Oiarzabalek gerora osatu zuen 14 zortzi milakoan ibilbidean lehen erraldoia izan zen hura. Bizitzak bidegurutze asko baititu, ni neu,



seme nagusia, Juanitoren bidelagun izan nintzen haren azken zortzimilakoan, Annapurnan, baina horri buruz luze-zabal arituko gara beste kapitulu batean.

Aitak lan asko egin zuen Cho Oyuko espedizio hartan, baina zoritxarrez, lan-kontuak eta familia tarteko, azkenean ezin izan zuen joan. Semeok, bihotz-ari-ma jardun ahal izan dugu mendian eta mendirako, baina aitak eta amak beti eman izan diote lehentasuna familiari, beste guztiaren gainetik.

Hori esanda, erraz ulertuko duzue, jaio baino lehen ere, amaren sabelean igo genituela gure lehen mendiak, eta jaio ondoren, aitaren sorbaldan edo bizkarrean, beste gailur mordoska bat jo genituela. Asteburua joan, asteburua etorri, txangoak egiten genituen Euskal Herriko mendietara, eta oporraldia Pirinioetan edo Alpeetan igarotzen genuen.

Hilabete izanez gero, hogeit egun mendian egiten genituen eta hamar hondartzan. Hondartza izugarri gustatzen zitzaigun, eta, gainera, amarentzat sari bat izaten zen, urte osoan gu hirurak jasan ondoren, ondo merezia izaten baitzuen atsedendaldi hori. Beti euskal kostaldean izaten zen, Mutrikuko Galdona kanpinan. Zoragarria da Mutriku, Gipuzkoako arrantzale herri koxkorra; han jaio zen Txurruka almirante entzutetsua, Trafalgarren armada britainiar ahaltsuaren aurka borrokatu zena.



*Gure gurusoak gure zutabea izan dira bizitzan eta mendiekiko maitasuna transmititu digute.*



*Asteburu guztietan euskal mendietan ibiltzen ginen, gure abentura-eremua ziren. Argazkian, Asier Azkarraga gure lehengusuarekin eta lagun batekin.*